



Irurtzongo Udala
Ayuntamiento de Irurtzun

LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA, EUSKARAZ IKASTEKO

Araudiaren xedea

Irurtzongo erroldan dauden pertsoneri, euskarazko ikastaroak egiten aritzeagatik, diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzea du helburu araudi honek.

Onuradunak

Ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak baliatzen ahalko dira laguntza hauetaz:

- a) Irurtzongo udalerriko erroldan egotea, urtebeteko antzintasunaz, gutxienez ere.
- b) 16 urtetik goitiko izatea, inskribatzeko orduan.
- c) Barnetegian egonez gero, ikastaroentzat bakarrik emanen da laguntza, eta ikaslearen kargu izanen dira ostatua eta mantenua.
- d) Gutxienez, ikastaroaren %80an parte hartu dela bermatzea, edo ikastaroa gainditzea.
- e) Euskaraz ikasteagatik, beste diru-laguntza batzuk eskatzeko aukera izanez gero, haiek eskatzea.

Laguntzen zenbatekoa

- a) Langabezia egonez gero, eskatzaileak matrikularen %60 hartuko du. Langabeziaren aldia ez bada ikastaroarekin batean gertatzen, langabezia egon den denboraren arabera diru-laguntza jasoko du.
- b) Gainerako kasuak matrikularen %40 hartuko dute.
- c) Deialdi honen diru-laguntzak bateragarriak dira beste entitate publiko edo pribatuek helburu berarekin emandako laguntzekin, baldin ez badago gehiegizko finantzabiderik.
- d) Betiere, 300,00 euroko diru-laguntza emanen da, gehienez ere, eskaera bakoitzeko.
- e) Horretarako aurrekontuan ezarritako diru kopurua ez da inoiz gaindituko.



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

Aurkeztu beharreko dokumentuak

- a) Eskabidea.
- b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- c) Ikastegiko ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak ematen dituen (hasi eta bukatzeko egunak, asistentziaren gaineko datuak eta matrikularen kostua).
- d) Langabezian egonez gero, langabeziko txartelaren fotokopia, behar bezala zigilatua, edo Gizarte Segurantzaren kide ez izana ziurtatzen duen dokumentua.
- e) Beste entitate batzuek emandako laguntzaren zenbatekoa erakusten duen dokumentua.

Eskabideen aurkezpena

- a) Eskakerak Irurtzongo Udaletxean beharko dira aurkeztu, bulegoetan edo web gunean eskuratutako inprimakia baliatuz, eskatutako dokumentazioarekin batean.
- b) Ekitaldiko urriaren 1etik azaroaren 30 arte aurkezten ahal dira eskaerak; aldiz, aurreko ekitaldiko urriaren 1etik abian den ekitaldiko irailaren 30a arteko epealdiari dagokio diru-laguntza.
- c) Beste entitate batzuen diru-laguntza hartuz gero, espres aztertuko da diru-laguntza horren zenbatekoa jaso den edo ez.

Eskabideko akats zuzenketa

Aurkeztutako eskaerak baldintzak betetzen ote dituzten aztertuko du Udalak. Aurkeztutako dokumentazioan akatsik bada edo dokumenturen bat falta bada, bost eguneko epea emanen zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko. Epe hori iraganik akatsak zuzendu edo falta zen dokumentazioa aurkeztu gabe, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da.